

## Hau dena fotokopiatu nahi nuke

**B**akoitza bere etxean, eta telebista guztienan. Tira. Hamaika Telebistan gabon gaueko mezua emateko arduradun Pirritx, Porrotx eta Marimotots izan ziren. Saioa 21:00etan hasi zen, eta gainontzeko telebista kateetan Espainiako Erregearen gabon mezuaren “alternatiba” moduan erakutsi omen ziguten. Radio Euskadiren eskutik Euskalduna Jauregian egindako Euskal Herriko Lur Maitea kantaldi berezia eskaini zuen ETB1ek Gabon Gauean. Erramun Martikorena, Naia Robles, Txomin eta Urbil Artola, Gorka eta Natxo Knörr, Pantxoa eta Peio, Jean Mixel Bedaxagar, Gontzal Mendibil eta Xeberri, Urko, Anje Duhalde eta Niko Etxarten ahotsean, 70 eta 80ko hamarkadeetako abesti eta abeslari ezagunen errepasoa eskaintzen zuen Bilboko Euskalduna Jauregian grabatutako kontzertuak. Radio Euskadi eta Elkar argitaletxeak elkarlanean egindako *Euskal Herriko Lur Maitea* bilduma lanaren aurkezpena zen Gabon Gauean Euskal Telebistaren lehen katean ikusgai izan genuena. Ordu berdinean, TVE 1ek Rafael eta Rocio Durcal kantariei eskaini zien gaua. Baina, ez al du sekula santan errukirik gurekin izango trantsizio demokratikoak? Hain ezbehar handia al da, azken batean, diktadurarik gabe bizitzea? Ez dut gehiago sinesten etorkizuneari, iraganeko kontua da! Hertzainak 1985ean kaleratu zuen “Hau dena aldatu nahi nuke” amets gaizto bat baino ez da, bihotza, 2011 nirea. Ondo dakigu gauzak ez direla aldatuko. Onera ez behintzat. Bizitzaren kostua %0,7 igo zen azaroan EAEn eta urte arteko tasak %4,2ko igoera izan zuen. Oinarrizko produktuei dagokienez, iaz elikagaiek eta edariei %7ko igoera izan zuten azaroa bitartean. Azken sei hilabeteetan zenbait pro-

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Urkiza

dukturen prezioa “bikoiztu” egin da. Bihartik aurrera argindarra %9,8 garestiagoa izango da. Lau urtean argindarraren prezioa ia %50 igo da Hego Euskal Herrian. Gaurtik aurrera, gas naturala ere garestiagoa izango da erabiltzaileentzat. Butano bonbonak ere salneurri berria izango du bihartik

aurrera, 40 zentimo gehiago. Trenez eta autobusez bidaiatzea ere garestiagoa izango da. Zein dirurekin ordainduko dugu? Lotsagarri da. Bestela esanda, lotsagarri... Familia kristauaren alde “otoitzean” eta aita santuaren bedeinkazioarekin, Europako familiaren egoera “ona ez” dela eta “txarrera doala” adierazi zuen Rouco Varela Madrilgo artzapezpikuak, dibortzioa, gayen arteko ezkontzaren onarpena, krisia eta langabezia errazten duten legezko neurriekin. Eta familien meza Errege Magoen agerraldiarekin amaitu zen. Mundu alu batean bizi gara. Gaur berriro ere, gaur berriro ere, gaur berriro ere... Entzuna eta ikusia daukagu hori guztia; hori guztia zaharra da, hutsala, alferrikakoa, batez ere alferrikakoa. Eta bitxia da ikustea zenbat jende uste duen bizitza berri bati ekiten diogula urte berriaren hasierarekin. Baina nekata, aspertuta, errepikapenaren errepikapen diren betiko esperientzietara lotuta gaude, besterik ez, burgestuta, haragiaren plazer txikienari uko egin gabe, esanez bezala: “Lasai nago hilda nagoenetik, patxada handiagoz hartzen dut arnasa”. Halako ordutan, halako errepikapena. Su-eten egiaztagarri, iraunkor eta orokorra aldarrikatu du ETAk. Adierazpena ez dela “txarra” esan arren, “ETak orain artekoari” eutsi diola gaineratu du Espainiako presidenteorde, bozeramaile eta Barne ministro Alfredo Perez Rubalcaba. Eta oharra egin du: “Iragana ez da itzuliko”. Eta ez da argazkien fotokopiarik onartuko. ■



TVE 1ek Rafael eta Rocio Durcal kantariei eskaini zien gaua. Baina, ez al du sekula santan errukirik gurekin izango trantsizio demokratikoak? Hain ezbehar handia al da, azken batean, diktadurarik gabe bizitzea?

